

Pachecotarrak, musikarekin bat



Musikak azken urteotan daraman bidea ikusita, zaila izango da Hernani bezalako herri batean senitarte bereko lau anai-arrebak musikariak ateratzea. Bada, gezurra badirudi ere, Pachecotarren etxean horixe gertatu da: lauak musikari. Esaerak dioen bezala, musika odolean eramaten omen da eta, belaunaldi batzuk musikarik gabe pasatu arren, azken urteotan musika dariola familia honetan.

Herri honetan hain ezagun egin diren lau anai-arreba hauek Roberto, Laura, Jorge eta Itsaso dira; bi, zaharrena eta gazteena, saxofonistak, eta tarteko biak, berriz, perkusionistak.

Laura kontatzen duenez, birraitona musikaria omen zuten, tuba-jotzailea, harik eta Gerra Zibilean hil zuten arte. Amonak kontatzen omen zien umetan aitarren instrumentuaren barruan sartuta nola ibiltzen ziren, ezkutaketan jolasten.

Gerra Zibilaren ondorengo urte gogor haietan, eskolako ikasketak egitea ere zaila bazen, are eta zailagoak ziren musika ikasketak. Horregatik, familia honetako bi belaunaldi izan ditugu musika ikasketarik gabekak: amonaren belaunaldia eta gurasoen belaunaldia. Baina horrek ez du esan nahi Pachecotarrenean musika bizirik ez zegoenik. Denek dute belarri ona musikarako, eta instrumenturik jotzen ez jakin arren, beti izan dute festarako eta kanturako grina etxean. Gaur egun, etxean lau instrumentista bikain izanda, festa bihurtzen dute edozein ospakizun, segituan ateratzen baitu bakoitzak bere instrumentua, eta denen artean izugarrizko saltsa sortzen dute.



Pachecotarren birraitona Coriako (Cáceres) bandaren partaidea zen.

Lau anai-arrebek musika odolean bazuten ere, aipatzekoa da gurasoen lana. Beti eman diete ikasketak eta behar zuten guztia, nahiz eta askotan ahalegin ekonomiko handiak egin behar izan horretarako. Hasieran, musika ikasketak osagarritzat jotzen zituzten, ez baitzuten argi ikusten musikatik bizi zitekeenik. Musika aparte, unibertsitateko beste titulu bat atera zezaten nahi izan dute gurasoek. Hala, Laurak irakasle ikasketak egin zituen, eta gurasoen nahia bete zuen, baina zaharrenak, Robertok, ingeniari izan ikasten hasi eta, ahalmena izan arren, bertan beherra utzi eta musika karrera egitea erabaki zuen. Erabaki latza, baina azkenean arrazoia berak eraman du, bere karreratik bizi baita, bai irakasle moduan bai instrumentista moduan lan eginez. Irakaskuntzan lan egin beharko zuela ikusirik, irakasle ikasketak ere egitea erabaki zuen. Beste biek, Jorgek eta Itsasok, Robertoren bidea ikusirik, musika karrera egitea erabaki dute; eta horretan ari dira buru-belarri.

Ikus dezagun, orain, lau anai-arreba hauek musikan egin duten bidea.



ROBERTOk, 30 urteko gazte honek, zortzi urte zituela hasi zituen musika ikasketak Hernaniko Musika Eskolan. Beste asko bezala, sortutako talde txikietan jotzen hasi zen, eta aurrerago herriko musika bandara salto egin zuen; 90eko hamarkadaren hasieran gertatu zen hori. Gaztetasunak ematen duen jotzeko grina hori baretzeko, ahalik eta talde gehienetan jotzen saiatu zen, eta bandaz gainera, hainbat txarangatan -Ortzadar txaranga, Txalaparta txaranga...- aritu zen. Baina urteak aurrera joan ahala, eta musika ikasketak gogoragoak izanik, saxofoia buru-belarri astintzen hasi zen. Zipri Otxandorena irakaslearekin Hernaniko Musika Eskolan oinarritzeko maila bukatu ondoren, ikasketak

Erreterian eta Donostian jarraitu zituen, Josetxo Silguero irakasle zuela. Harekin osatu zituen goi ikasketak, eta Musika Eskolan irakasle moduan lanean hasi zen.

Josetxo Silguero saxofonista bikainaz aparte, munduan zehar izen handia duten beste irakasle batzuekin zenbait ikastaro egin eta hainbat eskola magistral hartu ditu. Irakasleen artean, aipatzekoak ditu honako hauek: Arno Bornkamp, Marie Bernadette Charrier, Manuel Mijan, Jose Antonio Santos, Andres Gomis, Jean Michel Goury, Claude Delangle, Jean Marie Londeix...

Roberto
tronpetalari
ospetsu batekin,
Wynton
Marsalisekin.



Goi ikasketak bukatzearekin nahikoa ez, eta jazz munduan sartu zen. Harmonia modernoko eta jazzeko ikasketak egin ditu, hainbat irakasle bikainekin: Iñaki Salvador, Jon Dubuclet, Jon Robles, Antonio Peral, Iñaki Askunze, Mikel Andueza, Jackie Berecochea...

Hernaniko Musika Eskolan sortutako Hernasax saxofoi taldeko kide izatea lortu zuen ikasle zela, eta ordutik bertan jarraitzen du, askotariko musika motak lantzen. Gaur egun taldeko zuzendaria da; taldean, Musika Eskolako saxofoi-jotzaile aurreratuenak eta musika bandako saxofonistek parte hartzen dute eta Gipuzkoan zehar hainbat emanaldi egin dituzte. Horren bueltan, Hernasax saxofoi topaketak antolatu zituen 2006ko azaroaren 23tik 27ra. Lau egun horietan hainbat tokitik etorritako saxofoilariak eta estilo desberdinetako emanaldiak entzuteko aukera izan zen Hernanin.

Lehen esan bezala, Hernaniko Musika Eskolako irakasle da, 1998tik, eta bertako zuzendari, gaur egun. Bere eguneroko lana musikarekin loturik egon arren, musika hobby moduan ere erabiltzen du. Bere gustuko musika egiten duten bi taldetan, Mac Jeara's Band eta Pirineos Jazz Orchestra taldeetan, dabil gaur egun. Jazzarekin lotuta, gehien gustatzen zaiona kontzertuak ematea da, eta Robertok azpima-

rratzen dituen kontzertu berezien barruan, honako hauek dira nabarmentzekoak: 2002, 2003 eta 2004an Donostiako Jazzaldian; 2001, 2002, 2003 eta 2005ean Donostiako Musika Hamabostaldian eta 2005eko Getxoko Jazzaldian emandakoak.

Musikari gisa duen maila ikusita, ez da harritzekoa hainbat talderekin gonbidatu eta laguntzaile moduan aritu izana; besteak beste honako talde hauekin aritu izan da; Hernaniko Musika Banda, La Donostiarrak Banda, Haizebeltz saxofoi laukotea, Errenteriko Big Band, Jazzle Big Band, Ehme Big Band... Eta gonbidatu laguntzaile gisa jardun du honako hauetan: Oiasso Novis, Aksax, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Hungariako Szegedeko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Orfeoa, Donostiako perkusionistak...

Edozein musikarik du gogoko bere lana grabatzea, eta horretan ere saiatu izan da Roberto. Hainbat disko grabatzen laguntza eman du, baita irrati eta telebistako saioei musika jarri ere. Azkenaldi honetako azken grabazioa Ramon Salazarren *20 zentimetro* filmerako soinu banda izan da; eta Randy Brecker eta Pirineos Jazz Orchestrarekin ELKAR disko etxeak argitaratutako *Transatlantic Connection* diskoa grabatu du.

Robertoren ondorengoa Laura da; biek batera hasi zituzten musika ikasketak, baina instrumentu desberdina aukeratu zuten.

LAURAK 29 urte ditu; zazpi urterekin hasi zituen ikasketak Musika Eskolan; beraz, 22 urte musikaren munduan murgildurik. Baina berak egin duen ibilbidea Robertok egindakoaren oso bestelakoa da.

Esan dugunez, zazpi urterekin hasi zen Hernaniko Musika Eskolan perkusioa ikasten, Jesus Mari Garmendia irakasle zuela. Lehenengo errepikak ikasi

orduko, Musika Eskolako txistu eta dultzaina taldeekin herriko festetan, inauterietan, azeridantzan, ake-larrean, txalaparta festan eta halako hainbat ekitalditan parte hartzen hasi zen, bere danborrarekin. Urteak aurrera joan ahala, eta bere maila igotzen hasi zela ikusirik, hainbat taldetan parte hartzeko hots egiten zioten. Horietako talde bat, eta berarentzat garrantzitsuenak, Hernaniko Musika Banda izan zen. Hamalau urte zituela musika bandako kide egin zen, eta hamabost urte eta gero, hantxe jarraitzen du asteroako entseguetan jo eta su, igandetako kontzertuetan prestatzen. Hamabost urte hauetan era desberdinetan parte hartu du bandan. Musikari moduan hasi zen, baina 21 urte zituela bandako Presidente izendatu zuten, Bandako kideen onespenez. Urte batzuk pasatu eta gero, kargu hartan txanda eskatu, eta duela urtebetera arte bandaren artxiboa zaintzen jardun du. Beraz, goraiatzeko lana egin du bandan.

Ortzadar Txaranga
1995-96. urteetan.
Beste hernaniar
arteak Roberto,
Laura eta...



Bandan sartu zeneko garai berean, Ortzadar txaranga sortu zen Hernanin; kide guztiak Musika Eskolako ikasleak eta ikasle ohiak ziren, eta tartean Laura zegoen, perkusio-jotzailea. Talde hartako kide ziren lau anai-arrebetatik hiru; laugarrena oraindik txikitxoa baitzen, lau urte besterik ez zituen. Txaranga hura guztiontzako jauzi ohol moduko bat izan zen; txaranga ez zuen urte asko iraun, baina kide guztiok beste txaranga batzuetan jotzen amaitu genuen, Ortzadarrekin ezagutera eman eta gero. Laurari dagokionez, Kantauri txarangara egin zuen salto, eta talde horrekin Euskal Herri osoko herrietako festak alaitzen aritu zen.

Garai hartan, eskolako ikasketak eta Donostiako Goi Kontserbatorioko ikasketak batera egiten ari zen. Kontserbatorioan, perkusioko maila ertaineko ikasketak egin zituen, Vicente Mateu eta Donato Goyenechekin, eta Unibertsitatean irakasle ikasketak. Kontserbatorioan ikasten ari zela, bertako perkusio taldean jotzen hasi zen. Talde harekin Parisen, Madrilan, Sevillan, Bilbon, Donostian eta beste hainbat hiritan eman zituen kontzertuak gogoan ditu Laurak; garai hark oso oroitzapen onak ekartzen dizkio.



Ikasketak amaitu, eta Hernaniko La Inmaculada ikastetxean lanean hasi zen, Lehen Hezkuntzako ikasgaien eskolak eta musikakoak ematen. Gaur egun bertan jarraitzen du lanean. Horregatik nioen, hasieran, Robertok eta Laurak musikan egindako bidea oso desberdina izan dela. Bata Musika Eskolako irakasle eta instrumentista iaioa eta bestea, ikastetxean eskolak ematen; bi bide, baina biak egokiak musika maitatzeko.

Hirugarren senidea aurreko bien fusio moduko bat dela esan daiteke. Alde batetik perkusio-jotzailea da, eta, bestetik, bere musika karrera instrumentista izatera bideratu du. **JORGE** du izena, eta duela 25 urte jaio zen. Perkusioa ikasten 11 urterekin hasi zen eta berehala hainbat taldetan sartu zen. Gogoan dut nola etortzen zen erdi lotsatuta Ortizadar txaranga-ren entseguetara; baina azkar kendu genizkion lotsak. Ezagutzen dugunok badakigu, bai, nolako mutila den, edozein oztoporen aurrean kikitzen ez den horietakoa.



Hernaniko Musika Eskolan Jesus Mari Garmendia-rekin hasi zituen ikasketak, eta, ondoren, Erreterriako Musika Eskolara joan behar izan zuen beste maila bat egitera. Hamahiru urte inguru zituela, Hernaniko Musika Bandan hasi zen jotzen, eta gaur egun bertan dihardu, bandari erritmoa jarritz.

Hamazazpi urte zituela Euskadiko Gazte Orkestrarako hautatu zuten; Juanjo Mena zuzendariaren agindupean ibili zen han, 2002. urtera arte, tinbalak jotzen. Garai honetan orkestrako erreperatorioko, ganbera musikako eta instrumenturako eskola asko hartu zituen, besteak beste irakasle hauekin: Joan Ibarra, Josep Vicent, Martin Owens (Royal Philharmonic-ekoa) Robert van Sice eta Cesar Peris.

2001ean Pablo Sarasate Orkestra Sinfonikoan laguntzaile moduan hasi zen, eta 2003an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Donostiako Orfeoian. Orkestra horietan honako zuzendari hauen agindupean lan egin du: Jesus Lopez Cobos, Miguel Angel Gomez Martinez, Wayne Marshal, Oleg Caetani, James Judd, Heinrich Schiff, Josep Pons, Enrique Garcia Asensio... Askorentzat ezezagunak izango dira, baina musika munduan sartuta dagoen edonorentzat ohore handia litzateke horrelako zuzendarientzat lan egitea.

Jorgek, Robertok bezalaxe, gogoan ditu orkestra horiekin jotako kontzertuak, besteak beste honako leku hauetakoak: Lisboako Expo98, Segoviako Uda Musikala, Donostiako Musika Hamabostaldia, Kroaziako Bjelovareko Perkusio Jaialdia, Zagrebeko Litsinski auditorioan, ...

Hasieran aipatu dugunez, gurasoen lana oso garrantzitsua izan da horrelako musikariak ateratzeko. Jorgerekin egin duten lana izugarria izan da: irakasle onenekin klaseak hartzeko aukera eman diote eta beti izan dira laguntzeko prest. Laguntza horri esker lortu du Jorgek Jan Pustjens (Royal Concertgebouw) Nick Woud (Royal Concertgeboweko tinbal-jotzailea) Nancy Zeltsman, Igor Lesnik, Nick Petrella eta Angel Frette bakarlari eta perkusio pedagogo handien eskolak hartzea.

Orkestretan jotzea gustukoa badu ere, ezin du bere jatorria ahaztu, eta horregatik, ahal izan duen guztietan parte hartu du euskal musika jotzen, Donostiako eta Bilboko txistulari bandekin. Jazza ere gustukoa du, Robertok bezalaxe, eta Donostiako eta Zarautzeko Nazioarteko Jazz Jaialdietan parte hartu du, XX. mendeko hasierako jazz joz, eta modu horretan bere instrumenturako errepertorioa berrituz.

Musikari ezagunekin ere egin izan ditu kolaborazioak, adibidez Mikel Laboa eta Serratekin. Aurtan, Michel Camilo Latin-Jazz pianista ospetsuarekin jo du.

Gaur egun, nahiz eta musikari gisa izugarizko maila izan, ikasten jarraitzen du. Donostiako MUSIKENEn, Gustavo Gimeno (Royal Concertgebowko perkusio bakarlaria) eta Gratiniano Murcia (OBCKo tinbal-jotzailea) irakasle dituela, goi mailako 3. maila egiten ari da. Ikasteaz aparte, hainbat oposiziotara aurkeztu da



Jorge Royal Albert Hall-en Londonen, 2006ko abuztuan.



eta Claudio Abbadok zuzentzen duen Gustav Mahler Gazte Orkestran perkusio-jotzaile plaza lortu du eta orkestra honekin ibili da Europan zehar 2006ko udan, besteak beste Donostiako Hamabostaldian.

Hirutik bik perkusioa aukeratu bazuten, laugarrenak, **ITSASO**k, saxofoia aukeratu zuen, anaiaren bideari jarraitu nahian. Hemeretzi urteko neskaxa honek argi dauka zer ibilbide egin nahi duen: instrumentista izan nahi du, anaia Roberto eta Jorge bezalaxe.

Itsasok Hernaniko Musika Eskolan hasi zituen saxofoi ikasketak, zortzi urterekin. Erramun Oiartzabal izan zuen irakasle, lehenengo bi urteetan, eta, ondoren Roberto, anaia,... bai eskolan bai etxean. Hain gaztea izanik, izugarizko etorkizuna du Itsasok; baina ez da harritzekoa, familian duten sena eta horrelako irakaslea edukita.

Maila ertaineko ikasketak bukatu ditu Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan, Elisabet Elizalde irakaslearekin. Kontserbatorioaz aparte, beste anai-arrebek bezalaxe, eta gurasoen laguntzarekin, saxofoi bakarlari eta pedagogo ezagunen eskolak jaso izan ditu, honako hauenak, besteak beste: Arno Bornkamp, Iwan Roth, Carola Cuipers, Radek Knop, Jose Antonio Santos...

2002an, hamalau urte zituela, Hernaniko Musika Bandan jotzen hasi zen, ikasle moduan, eta gaur egun bandako saxofoi bakarlaria da. Beste banda batzuetan ere jo izan du, La Donostiarra Bandan eta La Donostiarra Orkestra Sinfonikoan besteak beste. Anaia zuzendari duen Hernaniko Hernasax saxofoi taldeko kide ere bada, eta Lauhaizeta akordeoi orkestran bakarlari moduan parte hartu izan du.

Ikasketekin orain arte bezala jarraitzen badu, bere anai-arreben maila hobetuko duela ziur nago.

Horixe duzue, bada, Pachecotarren familiak orain arte eman digun altxorra; baina espero dut altxor hori aberasten joango dela, bai lau anai-arrebei esker, baita Lauraren bi urteko semeari esker, Josebari esker. Hori baitugu bosgarren Pachecotarra, ostegunetako bandako entsegu bakar batera ere kale egiten ez duena. Hantxe igarotzen ditu entseguko lehen minutuak, danborra astintzen. Gogoan izan ezazue umetxoa, bera izango baita hemendik 20 urtera zeresana emango duena.